

**Euskal presoak** ◆ Gose grebaren ondorioak

# Preso gose grebalariak «fase kritikoan»

Hiru presok 41 egun daramatzate jan gabe, eta osasun arazo larriak izateko arrisku nabarmena dute

Aitziber Iartza / Donostia

Egun 18 euskal preso daude gose greban, prozesu politikoan parte hartzeko eskubidea dutela aldarrikatzeko. Protestan jada 37 presok hartu dute parte. Hiru presok 41. eguna dute gaurkoa jakirik jan gabe, eta, medikuek diotenez, jada «fase kritikoan» sartu dira. Izan ere, seigarren astetik aurrera arazo nabarmenak izan daitezke funtsezko organuetan, eta gorputza muskuloetako proteinak erabiltzen hasten da martxan jarraitu ahal izateko.

UNE honetan gose greban diren 18 euskal presoek 41 eta 5 egun bitartean daramate inolako jakirik ahora eraman gabe. Beste 19 preso ere izan dira gose greban, eta horietarik sei ospitalean daude oraindik, gose grebaren ondorioez suspertzen. Izan ere, gose greba luzeak ondorio larriak eta askotan ezezagunak eragiten ditu.

41 egun gose greban daramatzaten presoak Josetxo Arizkuren, Mikel Zubimendi eta Sotero Etxandi dira. Lehen biak Frantziako Fleury Merogis eta La Santen daude eta hirugarrena Iruñeko espetxean. 23 eta 20 kilo bitartean galdu dituzte hirurek eta arazoak izaten hasiak dira. Hala, esaterako, Zubimendik bitan galdu du konortea, baina gose greban jarraitzen du.

Hiru preso horiek gose grebaren seigarren astea abiatuko dute, eta Estibalitz Gorostiaga euskal presoan mediku taldeko kideak azaldukoaren arabera, «fase kritikoan sartu dira». «Lehen astean gorputzak karbohidratoak erabiltzen ditu. Bigarren astetik, berriz, grasak, baina seigarren asterako, gasarik geratzen ez denez, gorputza proteinak erretzen hasten da eta hor hasten dira arazo benetan larriak», azaldu du. Gorostiagak esandakoaren arabera, giharrak ahultzen dira eta benetako atrofia sortzen da, birikek ahalmena galtzen dute, arnasketa zailtzen da, neumonia eta antzekoen arriskua izugarri areagotzen dira, liseriketa aparatuan ultzerak sor daitezke,



Presoen borrokaldia gogoratzeko Donostian jarritako kartel bat.

## Preso gose grebalariak

• Hona hemen egun gose greban diren presoek zerrenda eta baita osasun arazo larriak medio gose greba utzi behar izan duten presoena ere.

### Gose greban daudenak

1. Mikel Zubimendi (41 egun)
2. Josetxo Arizkuren (41 egun)
3. Sotero Etxandi (41 egun)
4. Xabier Etxebarria (15 egun)
5. Kike Urarte (12 egun)
6. Garbiñe Ibarretxe (11 egun)
7. Iker Loiti (11 egun)
8. Patxi Aristi (11 egun)
9. Carlos Perez (11 egun)
10. Paula Garcia (9 egun)
11. Iñaki Arietealeaniz (10 egun)
12. Juantxu Tobalina (9 egun)
13. Oskar Bizkai (9 egun)
14. Mario Artola (9 egun)
15. Andoni Muñoz de Vivar (9 egun)
16. Manu Idarraga (7 egun)
17. Sergio Ortiz de Zarate (7 egun)
18. Ander Beristain (5 egun)

### Gose greba utzi dutenak

1. Sergio Fernandez (5 egun)
2. Juan Karlos Apodaka (13 egun)
3. Sebas Garcia (23 egun)\*
4. Patxi Gil (26 egun)
5. Maritxu Uzkudun (28 egun)
6. Gotzon Zabaleta (28 egun)
7. Begoña Uzkudun (29 egun)
8. Ainhoa Crespo (29 egun)
9. Edorta Ibarzabal (29 egun)
10. Jose Luis Gallastegi (30 egun)\*
11. Karlos Perez de Munain (30 egun)
12. Jon Imanol Gonzalez (32 egun)
13. Kepa del Hoyo (32 egun)\*
14. Daniel Ortiz (32 egun)
15. Asier Etxebarria (32 egun)\*
16. Angel Figeroa (33 egun)\*
17. Asier Irastorza (34 egun)
18. Oscar Amezaga (34 egun)
19. Mikel Egibar (36 egun)\*

\* Oraindik ospitalean jarraitzen dute.

### Arizkuren, hiru hilabete bi gose greba

Hiru presoek egoera kezgarria izanik, Josetxo Arizkuren kasua are deigarriagoa da oraindik. Izan ere, Arizkuren kasuaren lehen gose greba mugagabea hasi baino 10 egun lehenago hamabi eguneko gose greba utzi zuen. Arizkuren, Fleuryko beste kideekin batera, urriaren 12

eguneko gose greba egin zuen Jon Bienzobasen bakartzea amai zedin eskatzeko. «Gose greba batetik bestera hamar eguneko geldiuera baino ez du egin, eta aurreko gose grebak eraginiko karentzia guztiak berreskuratzeko aukera ez du izan. Ia-ia esango nuke oraingo 40 egunei beste 12ak gehitu behar zaizkiola, tartean jaten egon zen 10 egunek ez baitzioten bere onera itzultzeko balio izan», azaldu du Gorostiagak.

### Geroko ondorioei buruzko ikerketarik ez

Horrelako gose grebak «gorputzarentzat eraso zuzena» direla azaldu du Estibalitz Gorostiagak, eta «aldarrikapenak entzunak izan daitezkeen dagoen bide bakarra izatea» salatu du. Horrekin batera, gose greben epe luzerako ondorioen inguruko ikerketa sakonik ez dagoela azaldu du, baina ondorioak badirela argi du. «Esaterako, gose greba behin baino gehiagotan egin dutenek argi esaten dute sintomak gero eta azkarrago azaltzen direla, eta horrek esan nahi du organu batzuek ukituta geratu direla».

Azkenik, gose grebaren ondorengo erreperazioagatik ere kezka azaldu du, espetxean ez baitago horretarako beharrezkoak den dieta egokirik.

### Grebaren faseak

Gose grebak eragiten dituen kalteak

Medikuek astez aste gose grebalariak izan ditzaketen sintomak bildu dituzte

1. **astea** • Edozein esfortzuz ahuldadea eta zorbioak eragiten ditu. 'Gosearen kontrakzioak' sentitzen dira tripan, zuku gastrikoak botatzen jarraitzen baitu. Tentsioa jaisten hasten da.
2. **astea** • Hotza sentitzen hasten da gose grebalaria, eta baraualdi osoan sentituko du. Karbonohidratoak jada agortu dira eta gorputza grasak erabiltzen hasten da funtsezko organuak martxan jarrai dezaten.
3. **astea** • Kontzentrazioa eza ere nagusitzen da. Emakumeek hilekoa gal dezakete.
4. **astea** • Pisu galera nabaria da, 5-6 kilo asteko. Burua adi mantentzeko zailtasun handia, glukosa eza dela medio eta baita tentsio oso baxua delako.
5. **astea** • Masa muskularraren galera. Ondorioz, min dute mugitzean. Botagurea; giltzurdiaren eragin kaltegarria izan dezake. Ultzera txikiak liseriketa hodian. Infekzioak azal, aho eta begietan. Ilea erortzen da.
6. **astea** • Ahuldura nabarmena da eta fase kritikoan sartzen da gose grebalaria. Biriken aktibitatea gutxitu egiten da, arnasketarako arazoak sortzen eta infekziarako aukerak areagotzen. Ultzerak sor daitezke. Giltzurdiak gutxiago lan egiten dute. Hanketan edema mingarriak. Atrofia nabarmena da, gorputzak muskuluen proteinak erabiltzen baititu.
7. **astea** • Osasunean arazo atzeratzen eragin ditzakeen edozein arazo sor daiteke. Bihotzeko arazoak, defentsa baxuen ondorioz infekzioak funtsezko organuetan, bista arazoak, gorputzaren tenperaturaren jaitsiera eta abar.